

**19/2018 TXOSTENA, ABENDUAREN 4KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURAKOA****XEDEA: EUSKADIKO DOKUMENTU-KUDEAKETA INTEGRALAREN ETA ARTXIBOEN LEGEAREN AURREPROIEKTUA****I.- AURREKARIAK.**

Uztailaren 3ko Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legeak lehendabizikoz jorratu zituen, batetik, dokumentu-ondarea, eta, bestetik, Artxibo Zerbitzuak eta Artxiboen Sistema Nazionala. Beraz, ia duela 30 urte egin zen testu bat da, neurri batean zaharkituta geratu dena, eta, orain, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak dokumentu-ondarearen, dokumentu-kudeaketaren eta Euskadiko artxiboen erregulazioa sustatzen dute, txosten honetan aztergai den Euskadiko dokumentu-kudeaketaren eta artxiboen Legearen aurreproiektuaren bitartez (aurrerantzean, aurreproiektua).

Geroztik, lege mailakoa ez den araudi honek eragina izan du gaien:

- 232/2000 Dekretua, azaroaren 21ekoa, Euskadiko artxibo-zerbitzuen araudia eta agiri-ondarea arautzeko arauak onartzen dituena.
- 174/2003 Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioaren artxibo-sistemaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa.
- AGINDUA, 2005eko abenduaren 19koa, Ogasun eta Herri Administrazioi sailburuarena, agiriak identifikatu eta baloratzeko prozedura eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioi Dokumentazioaren Baloraziorako, Aukeraketarako eta Dokumentaziora Jotzeko Batzordearen (COVASAD) funtzionamendua ezartzen dituena.



- AGINDUA, 2005eko abenduaren 19koa, Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko artxibo-sistemaren erregelamenduari buruzkoa.
- Agindua, 2016ko irailaren 27koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena eta Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren dokumentu elektronikoak kudeatzeko politika onartzen duena.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari dagokio administrazioa modernizatzeko eta berritzeko prozesua sustatzea, gidatzea eta koordinatzea, baita administrazio eta gobernu elektronikoaren eta gardentasun-politikaren arloan ere. Era berean, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagokio ondare historiko-artistikoa kudeatu eta babestea. Hori guztia, Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuarekin bat etorritik (Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen).

Bi sailburuek sinatu zuten lege-aurreproiektua egiten hasteko aginduaren arabera, xedea «Euskadiko dokumentuen eta artxibo-sistema publiko eta pribatuaren trataera eta antolaketa arautzea da, baita dokumentu-ondarea babestea ere».

«Arauaren helburua honako hauek bermatzea da: erakundearen funtzionamendua hobetzea, kudeaketa publikoa gardena izatea, informazioa berrerabiltzea, herritarren zein administrazioen euren eskubideak gordetzea eta Euskadiko esperientzia kolektiboa biltzen duen dokumentu-ondarea gordetzea eta transmititzea».

Horiek horrela, Lege hau izapidetzen hasi da, zeinaren aurreproiektuari zenbait txosten eta alegazio egin zaizkion. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Aholkularitza Juridikoak txostena egiteko eskaera egin zion Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza honi, eta jarraian adierazten den bezala laburbiltzen da.

## **II. - ALDEZ AURREKO KONTSIDERAZIOAK.**



## **TXOSTENA EGITEKO ESKUMENA.**

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak 11. artikuluan xedatzen du nahitaezko txostenak eta kontsulta-organoen irizpenak izapide hori arautzen duten xedapenek ezarritako unean eta eran eskatuko direla.

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eskumena du aipatutako arauaren proiektuari buruzko txostena egiteko; izan ere, horrek eragina du kontratazio publikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua a) letraren 1. zenbakian xedatutakoari jarraikiz:

«27. artikulua.- Aholkularitza-eginkizunak.

Aholkularitza-eginkizuna betetzean, hauek egitea dagokio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

a) Honako hauei buruz nahitaez informatzea:

1.- Kontratazio publikoaren alorreko edo haren eremuan eragiten dutenei buruzko xedapen orokorren proiektuak edo aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluak edo hango sailburuek onartu beharrekoak».

Xedapen-proiektua denez eta ez denez horren xedea sektore publikoko erakundeak sortzea edota Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko erakundeen egitura organiko eta funtzionalak arautzea, 116/2016 Dekretuaren 30. artikuluaekin bat, txostena onartzeko eskumena Aholku Batzordearen Osoko Bilkurari dagokio.

## **III. - EDUKIA.**

Lege-proiektuak atariko titulua eta 7 titulu ditu, 60 artikulurekin; azken zatia 2 xedapen gehigarri, 4 xedapen iragankorrez, xedapen indargabetzaile batez eta 2 azken xedapenez osatuta dago.

Tituluen edukia hau da:

- I. Dokumentu eta artxibo publikoak
- II. Euskadiko dokumentu-ondarea
- III. Dokumentu publikoetarako eta dokumentu-ondararako irispidea
- IV. Euskadiko artxiboak
- V. Artxibo pribatuak
- VI. Zehapen-araubidea

#### **IV.- GOGOETA JURIDIKOAK.**

Kontratazio publikoarekin lotutako alderdiak «Zerbitzu publikoen emaileek sortutako dokumentu publikoak» jorratzen dituen 9. artikuluan aipatzen dira, lehenbizikoz. Honela dio:

«1. Lege honen ondorioetarako, zerbitzu publikoen emaile dira hezkuntza-, osasun- eta laguntza-izaerako edo beste edozein eratako zerbitzu publikoko funtzioak gauzatzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko pribatuak.

2. Funtzio horien ondorioz ekoitzi eta/edo metatutako dokumentuak dokumentazio publikotzat joko dira, eta une oro daude lege honetan xedatutakoaren mende. Dokumentazio horren kudeaketa zerbitzu-emailearen baliabideen bitartez gauzatuko da, edo, bestela, dagokion entitate publikora bidaliz, testuinguruan modu egokian kokatzeko beharrezkoa den informazioarekin batera.

3. Zerbitzu publikoen emaileen artxibo pribatuak zerbitzu horiek kontratatu dizkieten edo horiek gauzatzeko gomendioa edo baimena eman dieten erakunde publikoen ikuskapenaren mende egongo dira.

4. Zerbitzu publikoaren emaileen batek merkataritza-jarduera uzten badu, aurreko apartatuetan xedatutakoak eragindakako dokumentu guztiak dagozkion

entitate publikoari entregatuko zaizkio, inbentario formalizatupean, interes publikoa babesteko».

Puntu honetan, egokia dirudi doktrinak sortutako «zerbitzu publikoa» kontzeptuari heltzea, eta, alde horretatik, Garrido Falla izan behar dugu gogoan, zeinak Jordana de Pozasen kontzeptu tradizionalan oinarritu eta adierazten baitu zerbitzu publikoa dela ondasun materialak nahiz immaterialak ematea, monopolioarekin edo monopoliorik gabe, eta zuzenbide publikoko edo zuzenbide pribatuko erregimenean. Beraz, zentzu zabalean, erakunde publiko nahiz pribatu batek, herritarren beharrak asetzeko, erregulaziopean eman dezakeen edozein zerbitzu da. Zerbitzu publikoak, adibidez, elektrizitatearen banaketa, ur-hornidura, hondakinen edo garraio publikoaren kudeaketa eta beste hainbat dira. Horieta kontratazio publikoaren araudiaren erregimenaren arabera kontrata daitezke; gaur egun, bereziki, lege honen arabera: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean, SPKL).

Ez dago eragozpenik kontratistek kontratazio publikoa arautzen duen araudiaren arabera ematen dituzten zerbitzu publikoak aztergai dugun aurreproiektuaren 9. artikulua pean egotearekin, sortzen dituzten dokumentu publikoei dagokienez.

Badirudi gaia prestazioan sortutako dokumentazioaren jabetza intelektualaren gaiaren parekoa dela; Batzordeak jakinarazi duen eta kontratazioa arautzen duten pleguen ereduak jorratzen dute gaia, eta, nolana ere, Zuzendaritzako Ondare Zerbitzuak aztertzea eskatzen da.

Ondoren, hau dio aurreproiektuaren 14. artikulua:

«1. Beren eginkizuna gauzatzeko, funtzio hauek jarri dira artxibo publikoen ardurapean:

a) Dokumentuen eta administrazio-prozeduren diseinua erabakitzeke prozesuen eta programen kudeaketan parte hartzea.



- b) Dokumentuak, sortzen edo sartzen diren unetik, antolatzea eta modu egokian mantentzea haien bizi-ziklo osoan zehar.
- c) Beren baliabideak, pertsonala, eraikinak eta instalazioak administratzea, beren funtzioekin lerrotatuz eta funtzio horiek gauzatzearen aurkako bestelako erabilerak saihestuz.
- d) Beren entitateari lotuta edo haren mende dauden erakundeen artxiboak ikuskatzea.
- e) Dokumentuak ingurune seguruetan zaintzea.
- f) Dokumentazioa identifikatu, baloratu eta hautatzeko prozesuak gauzatzea, eta kudeaketarako jadanik beharrezkoak ez diren edo froga-baliorik, balio historiko-kulturalik edo bestelakorik ez duten dokumentuak suntsitzea eta balio iraunkorra dutenak zaintzea.
- g) Dokumentuak eskuratzeko, kontsultatzeko eta erreproduzitzeko zerbitzuak ematea eta bermatzea haiek sortzen edo kudeatzen dituzten entitateei, prozeduretako alderdi interesdunei eta herritarrei.
- h) Administrazioak berak edo hirugarren alderdiek berrerabiltzeko eskatzen zaien informazio eskuragarria ematea.
- i) Arriskuen kudeaketa-planak egitea, sektore publikoko entitateen funtzionamendua eta historia eta herritarren eskubideak kaltetu ez daitezen dokumentuak hondatzeagatik edo galtzeagatik.
- j) Dokumentuen helmuga kudeatzea organoen edo entitateen artean funtzioak eskualdatzen direnean edo horietakoren bat azkentzen denean.
- k) Dagokion administrazio publikoko langileei dokumentu-kudeaketaren arloko prestakuntza ematea, planen eta programen elaborazioa barne.
- l) Artxiboak zaintzen dituen dokumentuen erreprodukzioak eta digitalizazio-prozesuetatik sortzen diren kopiak kautotzea.

m) Hautatutako dokumentuen eta Euskadiko Dokumentu Ondarea osatzen dutenen kontserbazio iraunkorra ziurtatzea.

n) Ondare horren zabalkundea egiteko eta argitaratzeko politikak garatzea.

ñ) Dokumentuen kudeaketari edo lege honek artxiboei ematen dizkien funtzioetako edozeini aplikatutako sistema teknologikoen, adimen artifizialekoen, robotizatuen eta etorkizunean gara litezkeen beste edozeinen kudeaketan parte hartzea.

o) Aholkularitza ematea administrazio publikoei eta herritarrei, lege honen xedearekin zerikusia duten gaietan.

p) Dokumentu-ondarea izan litekeen dokumentazioa biltzea helburu duten herritar-ekimenak sustatzea eta haiekin lankidetzan jardutea, horrela badagokio.

2. Funtzio horiek egiaz gauzatu daitezzen, administrazio-ekoizpeneko sistemak eta plataformak artxibokoekin modu egokian integratzeko beharrezkoak diren antolakuntza- eta teknika-arloko neurriak hartuko dituzte entitateek, funtzio horiek gauzatzen diren prozesuetan elkarreragingarritasuna bermatuta egon dadin.

4. Administrazio publiko batean informazioaren gardentasunerako eta eskuragarritasunerako bulego espezifiko bat izendatu ezean, haren artxiboak hartuko ditu bere gain bulego horren funtzioak; helburu horrekin, horretarako beharrezkoak diren baliabide teknikoek eta giza baliabideez hornituko da.

Transkripzioa hitzez-hitzezkoa denez, jakinarazi behar da apartatuen numerazioa ez dela zuzena; 4 zenbakia duen apartatuak 3 zenbakia izan beharko luke, edo, bestela, 3. apartatua gehitu beharko litzateke, jarraian adierazten denaren arabera.

Izan ere, adierazi behar da funtzio horietako asko orain arte botere adjudikatzaileetako kontratazio-arloek egin dituzten eta egin behar dituzten funtzioen gainean jartzen direla. Hala, SPKL-k, adibidez, zenbait berezitasun ezartzen ditu, kontratazio-espeditentia eskuratzeari (52. artikulua, kontratazio-organoak ematera behartzen duena), interesdunei lizitazioari buruzko informazioa emateari (138. artikulua, elektronikoa noiz izan behar den eta



eskatu eta emateko epeak zehazten dituen) eta kontratistari eskatutako datuen tratamenduetan datu pertsonalak babesteari dagokienez (hogeita bosgarren xedapen gehigarria). Beraz, proposa liteke 3. artikulua zera esatea:

«Funtzio horiek guztiak dokumentuak sortzen dituzten prozedura mota zehatzak izapidetzeko ardura duten administrazio-unitateekin elkarlanean egingo dira, eta horri kalterik egin gabe».

Jarraian, artxibo-zerbitzuen kontratazioa jorratzen du aurreproiektuak (16. artikulua). Hauxe dio:

«1. Lege hau aplikatuko zaien entitate publikoek artxibo-zerbitzuak kontratatzeke, entitate haien artxibo-sistemaren arduradunaren aurretiko txostena beharko da. Edonola ere, kontratu horien xedetik kanpo geratuko dira dokumentuen kudeaketa integrala, artxiboen zuzendaritza, kontsulta-zerbitzua, dokumentuen zaintza eta jagoletza eta Internet zerbitzarietako biltegiatze-zerbitzu publikoak, entitate publiko baten jabetzakoak zein beste entitate publiko batzuekin partzuergoan eratuak.

2. Baliabide faltagatik ezin bada dokumentuen zaintza- eta jagoletza-zerbitzua gauzatu, zerbitzu hori kontratatu ahal izango da, betiere bermatzen bada kontratatutako enpresak edo alderdiak ez duela dokumentazioa edo haren edukia identifikatzen, ez osorik eta ez zati bat; horretarako, signatura disoziatuaren edo bestelako edozein informazioren bidezko sarrera-sistemak ezarriko dira.

3. Hodeiko konputazio-zerbitzuen edo etorkizunean gara litezkeen baliokideen kontratazioa aurreko apartatuetan xedatutako baldintzetan sartzen dela ulertuko da, eta kanpoan geratuko dira hodei publikoko zerbitzuak, entitate publiko baten jabetzakoak edo beste erakunde publiko batzuekin partzuergoan eraturakoak, instalazio publikotzat jotzen baitira ondorio guztietarako.

Gobernu Kontseiluak 2014ko apirilaren 29an onartu zituen zerbitzuen kontrataziorako jardunbide egokien inguruko jarraibideek jasotzen dute «artxibo-zerbitzuak» kontratatu daitezkeela (seigarren jarraibidea), zehaztasun gehiagorik gabe.





Aurreproiektuak kategoria horren barruan zer zerbitzu eta nola kontrata daitezkeen zehazten du, eta alderdi horri lotuta kanpora atera daitezkeen zerbitzuen eremua mugatzen du. Kontuan hartuta onartzen den arauak izango duen maila eta kanpora atera daitezkeen zerbitzuak ahalik eta era zorrotzenez interpretatu behar direla, ez da eragozpenik ikusten aztertu den 16. artikuluko honetako erregulazioan.

Dokumentazioa zaintzea eta eskuratu edo kontsultatzeko aukera ematea administrazioaren ardura izango dira; beraz, eta horren arabera, berriz ere falta da 23. artikuluko, 24. artikuluko eta 38.1.g) eta 39.2.d) artikuluek dokumentazioa eskuratzearen inguruan aipatzen dutena unitate izapidegileei dagozkienei eragotzi gabe egitea, bere araudi espezifikoarekin bat etorriz.

Dena den, lehen eta bigarren xedapen gehigarriek hutsune horiek gabe utzi dute aurreproiektua, hau baieztatuta:

#### «LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Izapidetzen ari diren administrazio-prozeduretako dokumentuetara interesdunek irispidea izateko modua Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak edo administrazio-prozedurari buruzko berariazko legeriak araututakoa izango da.

#### BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Irispide-araubide berezi bat ezarrita duten gaietan, titulartasun publikoko dokumentuetarako irispidea haren araudi espezifikoak arautuko du, eta, osagarri gisa, abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoak eta .../20... Legeak, Euskadiko Gardentasunari buruzkoak».

### **V.- ONDORIOAK.**

Horrenbestez, lerrootan adierazitako zehaztapenak eta oharrak aintzat hartzea espero duela, lege-aurreproiektuaren aldeko irizpena ematen du Batzordeak.

